



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengoa agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2022ko abenduaren 15ean onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2023ko otsailaren 23an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenean. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2023-01-26ko ohiko osoko bilkuraren akta, (1.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikiotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko urtarrilaren 24ean.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikiotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko otsailaren 7an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Jose De Azpiazu Musika Eskolaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, Txistuaren transmisioa, Euskal instrumentu tradizionala bermatzeko eta dirulaguntza zuzena onartzeko, kultura informazio batzordean diktaminatua 2023ko urtarrilaren 24ean.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Olalan gunean kokatzeko eskaera onartzea, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2023ko otsailaren 8an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantzarik hasierako onarpena ematea, zerbitzuak informazio batzordean diktaminatua 2023ko otsailaren 8an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Aloña Igoera Mendi Lasterketa Elkartearen arteko hitzarmena onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2023ko otsailaren 14an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: kirol arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2023ko otsailaren 14an.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: 2023ko martxoaren 8ko eguna dela eta.

11. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
12. 2023ko urtarrilaren 21etik 2023ko otsailaren 16ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 76 zenbakitik 200 zenbakira.
13. 2023ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (1.,2., 3. eta 4. saioak).
14. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udaltzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gainerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2023ko otsailaren 20an


Alkateak
Izaro Elorza Arregui